



3. sektoreakadi

Hirugarren Sektor Sozialaren  
Euskal Behatokia  
Observatorio Vasco del  
Tercer Sector Social

## JARDUNALDI-TAILLERA

### EZAGUTZAREN SORKUNTZA ETA KUDEAKETA EUSKADIKO HIRUGARREN SEKTORE SOZIALEKO ERAKUNDEETAN: IKASKETAK ETA EKARPENAK

HSSEBk antolatua

*Jakituria ez da, noski, gauza asko jakitea, baizik eta bizitzari buruzko egia sakon batzuen ulermen bizia, zeintzuk, ulertuak izan ondoren, beste modu baten bizitzera eramaten gaituzten (Claudio Naranjo, "Barne bidaia")*

#### Data eta tokia:

Jardunaldia Azaroak 3an izango da, Bilbon, BBK Kunan, 10etatik 13tara.

#### Planteamendua:

Euskadiko Hirugarren Sektor Sozialeko (hemendik aurrera EHSS) erakundeak euskal gizartearen oinarritzko aktibo bat dira. Haien eskuhartze esperientzian eta eraketa prozesuan gaur egungo gizarte arazoak heltzeko modu propio eta espezifiko bat sortzen dute, eta baita errealitatea eta sortzen dituen aldaketa sakonak ulertzeko modu propio eta espezifiko bat. Horregatik, duela zenbait denbora ezagutzaren kudeaketa erakunde bizitzaren elementu garrantzitsu bat da. Hirugarren Sektor Sozialetik heltzen diren arazoak gero eta konplexuagoak eta multikausalagoak dira. Hauei ekiteak, beraz, interrelazio eta interpretazioen ezagutza konplexua eskatzen du, eta ez simple ez lineala den erantzuteko modua.

Ulertzen dugunez, bereziki garrantzitsua da kontzientzian izatea ezagutza honek zer ekiten duen, nola sortzen den eta zelan dabilen informazioaren, datu kulturaren eta polarizazioaren gizartean. Ekintzatik datorren ezagutza askotan pertsonen arretari buruzko edo arazoak konpontzeari buruzko arduren atzean izkutatuta geratzen da. Hala ere, ezagutza horren balioaz kontziente gara, bai erakundeentzat, bai gizartearen orokortasunarentzat. Erakunde sozialek, ikasteaz gain, ezagutza sortu, hartu eta igor dezakete. Honek bere inpaktua eta eragiteko ahalmena hobetu dezake. Izan ere, ezagutza erakunde bihur daitezke: haien jakituria balioan jarri, kudeatu eta igorri. Bere esperientzia entzun eta sistematizatzek erakundeei haien praktikari buruz ikastea, eskuhartzea hobetzea, bertan lan egiten duten pertsonak motibatzea eta azaltzen diren erronka berriak modu aproposalan bideratzea baimentzen du. Bestalde, gizartea orokorrean egin, sentitu eta harremantzeko modu hauen ekarpenetatik onuratsen da. Erakundeek, berriz, ikerketa, zientzia eta esparru akademikoetatik datozen jakiteko moduak jasotzeko erronka daukate, zeintzuekin indartu, elkarlan eta elkar sortu dezaketen. Azkenik, haiei buruzko eta txertatzen diren errealitate sozialari buruzko ezagutza komunikatzea errealitate hori sensibilizatzeko eta eraldatzeko aukera bat da. Ezagutza garapen globalerako eta gizarte eraldaketarako elementu kritiko bat da.



3. sektoreakadi

Hirugarren Sektor Sozialaren  
Euskal Behatokia

Observatorio Vasco del  
Tercer Sector Social

Erakunde batek, handi edo txikia, bere burua ezagutza erakunde gisa ikusten ba du, honelako galderak egingo dizkio bere buruari: eragiten dugun errealitatea ondo ezagutzen dugu? Bultzatu nahi ditugun prozesuetan parte hartzen duten egile guztien pertzepzio guztiak kontutan hartzen ari gara? Zelan ziurtatzen dugu ezagutza gure proiektuetan gehitzen ari garela? Zer egiten ari gara orain daukagun ezagutza erabiltzeko eta hobetzeko?

Era berean, Hirugarren Sektor Sozialak egile eta partehartzaile heterogeneoetaz egituratuta egotearen berezitasuna dauka, eta horrela ezagutza anitzak sortzen dira pertsona bakoitzaren kokapen, ingurune eta subjektibitateagatik. Ezagutza pertsona bakoitzak bere baldintzatik eraikia eta landua da. Hartzaile deitzen ditugun pertsonak haien arazoari buruz eta bere ondorioei buruz ezagutzailerik onenak dira. Erakunde sozialak, lan konplexu hau laguntzen eta garatzen dutenak, gatazka, presio eta erresistentzietara arriskatzen dira.

-Nolako ezagutza sortzen da erakundeetan esperientzia ezberdinetatik? Nola ematen da ezagutzera? Erakundeak haien burua *ezagutza erakundetzat* daukate? Nolako balioa dauka haientzat ezagutzak?

-Nor arte dira erakundeak gizartearentzako ezagutza sortzaileak, eta nolako eragina dute harengan? Zelan dario ezagutzak sentsibilizazio eta eraginera? Zaurgarritasun eta bazterkeria egoeran dauden pertsonen buruz, eta behar dituzten prozesuei buruz erakundeek dakiten guztia, nola heltzen da gizarte politikerara eta iritzia sortzera? Nola indartu dezakegu ezagutzaren presentzia soziala erakundeetan?

## Helburuak eta egitura:

Jardunaldiaren helburuak hauek dira:

1. Erakundeek sortzen, daukaten eta eskaintzen duten ezagutzari balioa eman. Ezagutza hau aditzera emateko ahalmenak zabaldu, indargarri positibo bat izan dadin, eta balio erantsi bat, bai erakundearen barnera eta baita bere egoeran Hirugarren Sektor Sozialaren eta gizarte eskuharmen ekosisteman.
2. Aurkezten diren proposamenetatik abiatuz ezagutzaren kudeaketa eta norbere buruarengandiko ikasketa aukerak eskaintzea. Ezagutzara hurbiltzeko modu hauek azaltzea eta sektoreko erakundeen esku jartzea.
3. Erakundeak ezagutzaren papera indartzera animatu, bai bere barne eraldaketarako, bai gizarte eraldaketan eragina izateko.

Horretarako, honako egitura proposatzen da:

- a. Marko ponentzia: EHSSko erakunde batean izandako esperientziatik abiatuz, azaldu egingo da zer suposatzen duen erakunde batean informazioaren kudeaketatik ezagutzaren kudeaketara pasatzea, eta nolako erronkak planteatzen dituen erakunde ikasketa prozesuak. Horretarako Maria del Mar Magallón egongo da gurekin, 20 urte baino gehiago Alboan Fundazioan lan egin duelarik eta orain Deustoko Unibertsitatean doktoregai delarik.



3. sektorea

Hirugarren Sektor Sozialaren  
Euskal Behatokia  
Observatorio Vasco del  
Tercer Sector Social

- b. Ezagutza erakundeetan hiru ikuspegietatik aztertuko da: erakundeen ezagutza haien buruei buruz, ezagutza pertsona hartzaileen aldetik eta ezagutzaren zirkulazioa gizarte eraldaketa sortzeko. Bakoitzean azalpen teoriko labur bat egingo da eta adibide gisa kasu bat aurkeztuko da, eta horrekin batera erakundeentzako proposamen orokor bat.

## Programa:

10.00. Partehartzaileen harrera

10.05. Jardunaldiaren aurkezpena

10.10. Erakundeetan gure ezagutzatik ikasi: **Maria del Mar Magallón.**

10:40. Ezagutzaren sormena erakundeetan:

10:40-11.00. Zertarako eta nola ikasketak sortu erakundeetatik? **Esther Canarias (INCYDE Iniciativas de Cooperación y Desarrollo).**

11.00-11.20. Ezagutza pertsona hartzaileengandik: kasuaren sare eraikuntza. **Cosme Sánchez (BIZKAISIDA-Comisión Ciudadana Antisida Bizkaia)**

11.20-11.40. Ezagutza, eragina eta gizarte aldaketa. **Naiara Vink (ZAS!- Zurrumurruen Aurkako Sarea)**

11.40-12.00. Atsedena

12.00-13.00. Lan taldeak. Nola lagundu gaitezke ezagutzaz eta gizartean eragina izan?

13:00. Jardunaldiaren amaiera